



## **1. HONDARRIBIKO ARGAZKI RALLYA**

### **ARAUAK**

DATA: 2020ko abuztuaren 30ean .

ANTOLATZAILEAK: Ttopara Kultur Elkartea eta Hondarribiko Udala.

IBILBIDEA: HONDARRIBIA.

MODUA: Argazki kamera digitalarekin eta JPG formatuan izango da. Parte hartzaile bakoitzak, rallya hasi baino lehenago, bere argazki kamerako txartela hustuta izango beharko du.

GAIAK: BOST gai egongo dira eta hasieran "kontroleko" argazki bat burutuko da. Honek ez du puntuaziorik izango baina deskalifikatzeko balioko du entregatu ezean.

ARGAZKI KOPURUA: Gehienez 36 argazki aurkeztu daitezke, kontroleko argazkia kontutan hartu gabe.

PARTE HARTZAILEAK: Argazkilaritza gustatzen zaion edonor. Gazteen Sarian parte hartzen dutenek 16 urte artekoak izango dira eta adina adierazi beharko da.

INSKRIPZIOAK ETA KONTROLEKO ARGAZKIA: Kasino Zaharrea (Kale Nagusiko sarreraren ondoan), egunean bertan goizeko 9:00etatik 10:00ak arte.

TXARTELEN DESKARGA: Eguerdiko 13:00tak eta 14:00en artean, egunean bertan, Kasino Zaharrea.

ARGAZKIEN AUKERAKETA: Irailaren 6a eta gaueko 12:00ak arte izango da epea. Parte hartzaileak [ttoparaargazkirallya@gmail.com](mailto:ttoparaargazkirallya@gmail.com) helbidera bidali beharko dituzte, parte hartzailearen zenbakia eta aukeratutako argazkien zenbakia ipiniz.

PREZIOA: Parte hartzaile bakoitzeko 10 (hamar) euro. 16 urtetik beherakoek 5 €

EPAIMAHAIA: Epaimahaia argazkilaritza munduan garrantzia duten pertsonak izango dira. Antolakuntzak erabakiko du zeintzuk diren eta beraien emaitza aldaezina izango da.

SARIAK:

- 1. SARIA: bildumarik hoberenari, diploma eta 140 euro.
- 2. SARIA: bigarren bildumarik hoberenari, diploma eta 100 euro.
- 3. SARIA: hirugarren bildumarik hoberenari, diploma eta 80 euro.
- HERRIKO argazkilari bozkatuenari: 80 euro.
- GAZTEEN Saria (16 urte arte): 50 euro.

OHARRA: Parte hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.

SARIEN BANAKETA: Urriaren 2an, gaueko 20:00etan. Lekua eta ekitaldiaren nondik-norakoa aldeztu aurretik jakinaraziko dira, osasun egoeraren arabera prestatuko baitira.

NOTAK:

1. Rally honek Osasun Agintariak agindutakoa beteko du.
2. Rallya 14:00tan bukatuko da.
3. Edozein arazo edo aldaketa sortuko balitz arau hauetan, antolatzaileek hartuko dute horren ardura eta aldezina izango da.
4. Rally honen inskripzioak arau hauen onarpena adierazten du.